



# SAGARDUA

Guziak dakigu, kondairak-erakusten digulako, Noe izandu zala lenengo ardoa egiñ zuen gizona, baña askok ez dute jakingo oraindik, noski, sagardua, ardua baño lenago sortutako edaria dala, bada lenengo sagardoa, diotenez, izandu zan gure aita Adanek egiña.

Es da esan bearrik Jaungoikoak debekatu ziola lendabiziko gizonari, alako ainbeste lan, pena, neke eta doakabe erakarri azi zizkigun sagar arbol arren frutua jafia, eta jakifia da Jaungoikoan agindua autzirik sagarra jan zutenian, gure lenengo guraso Adan eta Eba arki ziran leku eder artatik, au da, paraisotik, botiak izandu ziralda, eta kondenatuak, beste pena askoren tartian, lana egitera; ordu artian egiñ etzuten gauza.

Ala, egun batian, bazebillen batetik bestera bere emastearen aldamenian, burua makur, isil eta oso triste, gogaturik galdu zuela geiago arkituko etzuen zoriontasun eder ura, eta ara non, beste arbol mota batzuen artian ikusten duen bat sagarrarena, aif orriduna, galanta eta ederra, non bere adar ugari eta zabalak, zeukaten fruta usai gozotsuaren kargan meriyoz, zeuden lur jo-ta.

Alako moduan ikusi zuenian bere zenarra, galdetu zion Ebak:

—¿Zer dezu Adan?

—¿Ez aldezu ikusten?

—¿Zer?

—¡Arbol madarikatu ori!

—¡Orren ederra dago! ¡Oiek sagar engañatzalleak!

—¡Baña emakumea! ¿Ez alzaizu negar beroa egiteko gogorik etortzen frut'ori probatzeagatik gertatu ondorian?

—¡Zer nai dezu bada, Adan maitea! Frut'orrek imanak orratza bezela bereganatzen nau. ¡Laja zaidazu sagarcho bat jaten!.. Bat bakarria, besterik ez bada ere!..

Au entzun zuenian, jarri zan Adan lenago baño asarre biziyaguan, alderatu zan arbol arregana, eldu zion gerri-gerritik eta astindu zuen bere beso indartsuak zuten kemen guziakin, alako moduz non, lur dena gelditu zan sagarrez estaliya. Abek malda bera joan ziran giraka eta geienak gelditu ziran lurrian zegon zulo aundi -samar batian sartuta.

Orduan Adanek arturik an inguruan topatu zuen arri aundi bat, joka purrakatu zituen an zeuden sagar denak eta gogoz apurtuak ikusi zituenian, arri aundi ura gañian jarrita utzi zuen.

Bere aserre ben-benetakua orrela erakuzti ondorean, artu zuen bere ematea eta andikan aienatu ziran, Adanek begiratu oso supitakorra, au da, kolerez betia, egiñik arbolarí eta noizik-beifñ Ebak burua alde artara giraturik pen'aundiz alako ichura tristian ikusten zuenian, aif maitetasun aundiya zion frutua.

Andik egun batzuetara, beti bezela zabilzan bear zuten janarian billa senar-emasteak, eta gertatu zan ustegabian toki artan bertan arkitzea, baña aif nekatuak, non erabaki zuten piskabat deskantzatzia arboladi arrek ematen zuen itzalean.

Oso bero zegon, oraindik egun artan etzuten urik topatu eta egarriyak iya itoan zeuden.

Bat-batetan Ebak ezagutzen du zer tokitan arkitzen ziran eta begiratu zuenian Adanek sagarrak zanpatuta utzi zituen zulo artara, iduritu zitzaion putsuzulua bezelako zerbait, an inguruan.

Altxa zan eta joan zan korrika eta jarren poza arkitu zuenian sagarrak zanpatutako zulo arren bekoaldian beste zulo chikiagoko bat, likurati garbi eta urre koloreko batekin gorafio beifia! eta auspesturik egiñ zuen zurrut luze bat.

Zan Adanek egun gutxi zala arriakin alako aserrian lerdekatu zituen sagar aien zumua, arri aundi arren pisuak zanpatu ta zirriyuan beko zulora joan zana, eta an bertan irakiñ eta biurtu zana aif edari presko eta gusto paregabekoan, iruskiyaren azpiyan. Ura zan mundu ontan lenengo egintzan sagardoa.

—Atoz, nere Adan maitea (zion Ebak ojuka bere egarri izugarriya ill ondorian) atoz onuntz urte urtua dirudiyan edari on au eratera, orain arte eran ditugun uran aldian!.. au mama ederra!..

Altxa zan orduan Adan eta eran zuen premiyazko egarriya nabaitzen duen arrek eraten duen moduan...

Orra bada esan guk euskaldunak orrenbeste maitatzen degun edari eder paregabekoaren sustraya edo asiera noletan izandu omentzan.

Entzun izandu det, Adanek bere zurrutaldiya egiñ ondorian, bere emazte Ebak, izkuntza burlati samarrian esan ziola: Orain dala egun batzuek, nik ez nezaken sagartxo bat bakarrik ere jan, bañan zuk gaur batere kupirik gabe, gogoz eta pozez ederki eran dezu sagar ayen zumua.

¡Emakumea izaki!

Eta erantzukintza ori izandu omentzan gero tikanen egiñ izandu diran denan asiera.

ENRIKE ELIZETXEA-K.